Prentsa oharra

Pauso bat eman du tokiko freskoen espezializazioan

EROSKI-K %42 IGO DU TOKIKO ELIKAGAIEN SALMENTA NAFARROAN JOAN DENEKO BI URTEAN

- **Nabarmentzekoa da haragian %89 igo zaizkiola salmentak, belaunaldi berriko dendetan harategia jartzeari esker**
- **Esnekien salmenta %43 igo da, batez ere erabat Nafarroako ekoizpenekoa den EROSKI gamako esnea dela eta**
- **Kooperatiba 500 euskal hornitzailerekin baino gehiagorekin aritzen da lanean, eta 220 milioi euroren erosketak egiten dizkie urtero**

Iruñea, 2019ko martxoaren 15a.- EROSKIk saltzen dituen Nafarroako elikagaien salmentak gora egin du %41,78 joan deneko bi urtean. Hazkunde hori dela medio, kooperatiba behartuta dago tokian tokiko janarien alde sendo egitera, Zurekin eredu komertzialarekin ari den bezala, kontsumitzaileek estimatzen baitute.

Eredu horrek asko laguntzen du tokiko nekazaritzaren ekoizpen ehuna dibertsifikatzen, bai eta sektorea iraunarazten eta denda guztien ingurune hurbileko ekonomia, kultura eta paisaia indartzen ere. Nafarroako sektore ekonomiko guztietatik, EROSKIk 3.300 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta hemengo 500 hornitzaile ingururekin dihardu, haiei 220 milioi eurotik gorako erosketa eginez urtero.

"*EROSKIk proposamen espezializatu bat egiten die kontsumitzaileei janari freskoetan; izan ere, gure denden bereizgarri bihurtu da hori, tokian tokiko janari ekoizpenarekin batean. Kontsumitzaileak gero eta gehiago balioesten ditu bere ingurune hurbiletik datozen janariak, kalitate onekoa eta autoktonoa denarekin sentiberatasun handiagoa duelako",* esan du EROSKIk Nafarroako Hipermerkatuetan duen eskualde zuzendariak, Anabel Zariquieguik.

Hazkunde handiena haragian eta esnean

EROSKI ari da harategiko mahaiak jartzen eta zabaltzen belaunaldi berriko bere dendetan, bezeroari arreta pertsonalagoa emateko. Kontsumitzaileari egindako proposamen horrek saria izan du, Nafarroako haragiaren salmentak zer-eta %89 igo baitira bi urte honetan. Nabarmentzekoa da nolako bultzada eman dion Nafarroako Aratxea AGBrekin ziurtatutako abelgorri haragia *EROSKI Natur* marka propioarekin saldu izanak.

Tokiko elikagai freskoen salmenta %44 handitu zaio EROSKIri 2016tik hona, eta elikagaiak epe berean %39 pasa. Horrez gain, nabarmentzekoa da %43 igo dela esnekien salmenta, batez ere EROSKI gama berriko esnea atera duelako; erabat

EROSKI
Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ
Tel: 946 211 214
comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE
JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO
Tel: 944 158 642
Online prentsa aretoa

Nafarroako esnea da, eta Esne Produktu Iraunkorraren zigilua du. "*EROSKIk ekimen mordo bat bultzatzen du Nafarroan lehen sektorean, hasi tokian tokiko elikagaien ekoizpenetik eta segi marka propioko arrautzetan, barazki kontserbetan, Idiazabal Gaztan eta Erronkari Gaztan. Gainera, EROSKI Natur marka propioarekin Nafarroako Zainzuriak eta Tuterako Orburuak saltzen ditu, besteren artean*", esan du Zariquieguik.

Kooperatiba lanean ari da Teknologia eta Azpiegitura Agroalimentarioetako Nafarroako Institutuarekin (INTIA), bertako produktuak Reyno Gourmet markarekin sustatzeko; marka horren 350 erreferentzia merkaturatzen ditu. Hain zuzen, duela gutxi, zigilu hori duten barazki kontserben gama gaineratu du SELEQTIA marka propioarekin.

Horrez gain, EROSKIk Nafarroako Kluster Agroalimentarioan parte hartzen du; kolektibo bat da, sektore askotako 30 bat korporaziorekin osatua, eta horren helburua da Nafarroan nekazaritzako elikagaigintzan dihardutenak lerrokatzea Europako berritasun eta iraunkortasun politikekin.

Janari banatzaileetan lehena Nafarroan

Kooperatiba izaera duen lehen banatzailea da EROSKI, eta liderra Nafarroako elikagaien banaketan. 111 saltokiko sare komertziala du Foru Erkidegoan; besteren artean, hipermerkatu eta supermerkatu propio nahiz frankiziatuak, eta dibertsifikazio dendak; horiez gain, on line supermerkatua; alde horretatik, bakarra da erosketak Nafarroako edozein etxetara eraman ditzakeena. EROSKI Clubak 180.000 bazkide ditu Nafarroan.

EROSKI
Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ
Tel: 946 211 214
comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE
JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO
Tel: 944 158 642
Online prentsa aretoa